

Lezoko Unibertsitateko Udala

DIKTAMENA

Serviociok esleitua duen kontratuan baldintza aldaketak

2014ID170001

Kontu eta Ogasun batzordeak 2014ko martxoaren 21ean onartutako diktamena:

Alkateak proposamenaren berri eman du. Proposamenak honela dio:

"Bekoerota kiroldegia eta Altzate igerilekuak kudeatzeko 2000. urtean egin zen lehiaketan udalak Serviocio S.L. esleipendun izendatu zuen 2001eko martxoaren 16an.

Esleipen hori burutzeko egindako lehiaketa arautzen zuen eta 2000ko urriaren 4an osoko bilkuran onartu zen baldintza-orrien 3. atalean jasotakoari jarraituz, Lezoko udalak 2003ko martxoaren 14ko eta 2008ko apirilaren 09ko osoko bilkuretan kudeaketa bitan 6 urtez luzatzea erabaki zuen. Hau honela, Serviocio S.L. aipatutako emakidaren esleipendun da 2015eko martxoaren 29rarte.


Serviocio S.L.k ikasturte bakoitzeko jarduera memoria eta memoria ekonomikoa aurkezten ditu kirol instalazioetako jarraipen batzordean.

Azken lau urteetako datuetan ikus daiteke bazkidetza kopuru joerak behera egin duela, bai egoera ekonomikoa eta bai beste herrietako instalazioetan egindako hobekuntzen ondorio, besteen artean. Azken luzapen epe honen hasieran enpresak inbertsio garrantzitsua egin zuen instalazioetan instalazioen alderdi sendo eta erakargarrienak indartze aldera.

Aurreikuspen ekonomikoak oso baikorrak izan ez arren, enpresak bertan zeraman denbora zela eta, eta esplotazioaren egonkortasuna eta konfliktibitate eza zirela eta, bere presentziaren balorazio ona egiten zuen, are gehiago Errenteriako instalazioak kudeatzen hasi zenetik.

Ekonomikoki oso aldekoa ez zen egoera honetan, 2012. urtean bi gertakari ematen dira:

- Espainiako gobernuak 2012ko irailean kirol zerbitzuei aplikatzen zitzairen BEZa %8tik %21ra igo zuen. Honek bi eragin ezkor izan zituen esplotazioaren balantzean:
 - alde batetik indarrean zeuden eta enpresak kobratzen zituen tasen deklarazioan sortarazi zen desoreka Serviociok bere gain hartu behar izan zuen (%13) 2012. urtean.
 - Bestetik, 2013 urterako bazkidetzetan aurreikusia zegoen igoera bertan behera utzi behar izan zen, zeren bezaren %13ko igoerak tasen %13ko igoera ekarri baitzuen esplotazioan inongo sarrera berririk eragin gabe.
- Lan hitzarmen berria indarrean sartu zen 2012ko abenduan. Bertan jasotzen ziren baldintza berriak, pertsonal atalean (esplotazioaren gastuen %70 ingurukoa) %18ko gainkostua sortarazi zuen.



Lezoko Unibertsitateko Udala

Esplotazioaren egoera jasangaitza izango zelakoan, egoera leundu zezaketen neurri batzuk hartu ziren elkarlanean (uraren tasaren jaitsiera, instalazioen irekiera ordutegiaren murrizketa...).

2013 urtea aurrera joan ahala eta esplotazioaren zenbakiak eskuan izanik, Serviocioko S.L. ko ordezkariak udalarekin harremanetan jarri ziren eta bertan jarraitzea ezinezkoa zutela jakinarazi. Kontratua ahalik eta lehen eteteko proposamena geldiarazi eta udala bere aldetik gauzak behar diren bezala egiteko gutxieneko epea eskatu zitzaion. Hau honela, 2013ko uztailaren 2an 1.972 sarrera zenbakia duen eskaerari sarrera eman zion Serviocioko Agustin Martinez ordezkariak udalean.

Serviociok aurkeztutako kontuak aztertu ondoren, eta bertatik eratorritako datuak egoera benetan ekonomikoki txarra zela adierazten zutenez eta aurrera begira egoera okerrera egingo zuela eta hartu beharreko neurriak bai zerbitzuaren ikuspuntutik edo bai ikuspuntu ekonomikotik garrantzitsuak izan zitezkeelako, kanpo azterketa bat eskatu zen inongo erabakirik proposatu baino lehen. Hori horrela, Kirol Management kirol aholkularitza enpresak Serviocioren kudeaketaren azterketa bat egin zuen eta epe motzerako aurreikuspena. Beraiek egindako txostena aurreikusitako egoera baieztatzen zuen eta etorkizunari begira joera nahiko larritu zitekeela.

Desoreka ekonomiko egoera larri honen eragile nagusi bat esplotazioarekin zerikusia ez duten kanpo faktoreak izan zirela ere aintzat hartzen genuen.

Lehiaketa arautzen zuen baldintza orriaren 11.3 atalean, Lezoko Udalaren eskubideei buruz hau esaten du:

“Lezoko Udalak bere esku izango ditu, dagozkion gainerakoen kalterik gabe, ondorengo ahalmen hauek:

Interes publikoko arrazoirengatik kontraturiko zerbitzuaren ezaugarriak...aldatzea eta , besteak beste:

Zerbitzua osatzen duten prestazioen kalitatea, kantitatea, denbora edo lekua aldatzea, eta


Publikoaren kargukoetan eta emakidadunaren ordainsari eremuan tarifak aldatzea.”

Baldintza-orrien 11.4 atalean, Lezoko Udalaren bete-beharrei buruz hau esaten du:

“Lezoko Udalaren bete-beharrak dira:

Emakidunari adjudikazioan oinarrikotzat jo ziren balizko ekonomikoen oreka mantentzea, eta horretarako:

Tarifak berraztertuko ditu baldin eta, zerbitzuan aldaketarik izan ez arren, aurreikusi ezineko eta sortutako inguruabarrak gertaturik, horiek edozein zentzutan emakidaren ekonomiaren haustura ekartzen dutenean.”



Lezoko Unibertsitateko Udala

Datu guzti hauek eskuan izanda, baloratu genituen aukeren artean epe motzera begira, bai zerbitzuaren ikuspuntutik eta bai udal aurrekontuetan izango zuen eragina kontuan hartuta, Serviciorekin emakida epea burutzeko akordio batetara iristea aurreikusi genuen interesgarriena Lezoko herriarentzat.

Servicio S.L.rekin bilera ezberdinak egin ondoren, kirol instalazioen kudeaketa berria esleitu bitartean akordio proposamena bat adostu zen. Bertan, kirol instalazioak baldintza-orriak jasotzen duten terminoetan kudeatzen jarraitzea, egun bertan behera gelditu den lan hitzarmena langileei aplikatzen jarraitzea, udalak kontratazio berri batetarako lehiaketa prozesua martxan jartzea, kontratazio berria gauzatzen denean kontratu hau bertan behera uztea epea amaitu ez bada ere eta udalak kudeaketa lanengatik enpresari luzatzen dion kontrakanona kopuru jakin batean handitzea jasotzen zen.

“Serviciok esleitura duen kontratuan baldintza aldaketak” espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, Kontu eta Ogasun batzordeak, 2014ko martxoaren 21ean bilkuran, Ainhoa Intxaurrendieta, Ainhoa Zabalo, eta Eneko Lartigeren botoa alde dela eta Kepa Garbizuren abstentzioarekin, proposamena diktaminatu du osoko bilkurak ERABAKI HAUEK hartu ditzan:

BAT: Bekoerrotan kiroldegiko eta Altzate Igerilekuekiko emakida baldintzak aldatzea Servicio S.L. enpresak jasotzen duen ordainsariari dagokion atalean.

BI: Servicio S.L. enpresak, Bekoerrotan kiroldegiko eta Altzate Igerilekuekiko kudeaketa integralaren esleipena dela eta, 2014. urtean jasoko duen ordainsariari 30.250 € tako ordaina gehitzea, esplotazioarekin zerikusia ez duten kanpo baldintzek eragindako desoreka ekonomikoa dela eta.

HIRU: Ordainketa aldi bakar batean egitea.

LAU: 30.250,00 €tako gastua onartzea 1.227.99.452.20.2014 partidatik (AD-60).


BOST: Alkatea ahalitzea, Serviciorekin sinatua dagoen kontratua, bukaera epea baino lehen bertan behera uztea kontratu berri bat sinatuko balitz.

SEI: Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsioa aurkez dezake 30/1992 Legearen arabera.

- Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsioa aurkeztekotan Udalaren Osoko Bilkurarengana jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake zuzen-zuzenean.



Lezoko Unibertsitateko Udala

- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsoa aurkeztekotan, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.”

HA Lezo, 2018/03/24.

Ainhoa Intxaurrendieta Ezkurra, Ogasun Batzordearen lehendakaria

